

Musika Hamabostaldia

kritika ♦ XVIII. MENDEKO ORKESTRA

Denboraren makinan

PABLO S. QUIZA

XVIII. Mendeko Orkestrak Hamabostaldian eskainitako lehen kontzertua.

Orkestra: XVIII Mendeko Orkestra.
Zuzendaria: Frans Bruggen. **Obrak:** Beethovenen 1. Sinfonia Do maiorrean op. 21 eta 3. Sinfonia op 55, (Heroikoa).
Lekua: Victoria Eugenia antzokia.
Eguna: Abuztuaren 26a.

HALAXE sentitu ginen XVIII. Mendeko Orkestrak emandako lehen saiora joan ginenok, Musika Hamabostaldiak proposatzen duen Beethovenen Sinfonien integralari ongi etorria emateko. Musikazale guztiontzat galdu ezineko aukera da hau, arrazoi askorengatik: alde batetik, sinfonia guztietan zehar Bonneko maisuaren bilakaera estilistikoaren ikuspegi zabal eta konparatu bat izateko abagune aproposa delako; eta bestetik, Frans Bruggenek zuzendutako orkestraren eskutik mundu beethoven-dar desberdin batekin topo egiten dugulako.

Orkestra txiki hau (47 musikaririk osatzen zuten formazioa), garai hartako instrumentuak erabiliz (oso harrigarria egiten zitzaigun tronpen soinu zakar samarra, adibidez), orain dela 200 urte ohizkoa zen sonoritatea sortzen saiatzen da. Egia esan, ausardia handia iruditzen zaigu esatea antzinako orkestren soinu-mundu berbera erreproduzitzen dutela, garai hartako grabaketarik ez dugulako noski, baina bai esan dezakegu egiten duten Beethoven-a desberdina dela, eta ona. Hori bai, norbaitek Karajan baten handimandikeria gustukoa badu, Bruggenen bertsioak ez du zerikusirik. Eta hauxe da bere sekretua: interpretazio sinplea baina barruko tentsioa duena, eta interpreteen kalitate tekniko izugarria, zuzendari honek exigitzen

dien perfekzio tinbrikoa gautzeko.

Doitasun erritmikoa nagusi

Do maiorreko op. 21 1. Sinfoniaren interpretazioa benetako aho-gozagarria izan zen entzuleentzat. Txunditurik gelditu ginen orkestraren konpaktazio aparta entzunez. Lehenengo ataketik bukaeraraino doitasun erritmikoa nagusitu zen, eta bolumen txikiko orkestra batean meritu handiagoa du honek, edozein desajuste guztiz nabarmena izango litzatekeelako. 2. mugimenduan azpimarragarria izan zen zuzendariak eramandako tenpo lasai baina arretari eusten ziona. Bere keinu txikiekin nahi dituen nabardurak ateratzen ditu Bruggenek, hain da adierazkorra.

Sinfonia honen flash-a 3. denbora izan zen. Bakarrik holako orkestra txiki eta fin batekin posible den arintasun izugarria lortu zuen. Amen batean pasa zitzaigun Menuetto: Allegro molto e vivace hau. Benetan vivace entzun genuen, gehienbat haize-metalezko instrumentuek normalean baino pisu gutxiago zeukatelako. Laburbilduz, ikuspegi sinple eta mozartianoa eman zuten musikari holandarrek, mehetasunez beterikoa.

Baina zinezko txokea 2. zatian iritsi zen, 'Heroikoa' izeneko 3. Sinfoniarekin. Zerikusirik ez ohizko irakurketa heroikoeekin. Hala ere, ez zitzaion falta beste era bateko handitasuna Bruggenen bertsioari. Nabaria izan zen maisu honek egindako musikologia-lana horrelako emaitza depuratu batera iristeko. Fraseatze argi batekin, garbitasun musikal handi batekin eta xehetasun txikietatik (normalean egiten ez dena) onura gehien ateraz lortu zuen sinfoniaren mamira iristea. Bigarren mugimenduan (Marcia funebre: allegro assai) zati fugatu miresgarri bat gozatu genuen, non ahots guztiak ederki zaindurik entzun ziren, sarrera doi-doiak eginenez. Mugimendu berean erdietsitako progresioa klimax bateraino bereziki perfektua ateraz zen. Haize-egurrezko familia nabarmendu zen bertan, bere segurtasunagatik.

Azken batean, zapore desberdineko Beethoven bat, bereziki zaindutako irakurketa manierista batetik pasata. Eta hurrengo egunean, gehiago.

✍ Montserrat Auzmendi del Solar

laburrean

A R T E A

■ 13.000 bisitari inguru izan ditu 'XX. Mendeko Euskal Pintura' erakusketak

DONOSTIAKO Kutzako erakusketa aretoan ikusgai dago XX. Mendeko Euskal Pintura erakusketa, eta azken astean sartuko da, irailaren 5ean izango baita ikusteko azken eguna. Orain arte 13.000 bisitari baino gehiago izan dira, antolatzaileen arabera. Sei ataletan dago banatuta erakusketa, eta horietan azken mendearen ikuspegi zabala ikus daiteke.

A N T Z E R K I A

■ 'Políticamente incorrecto' antzezlanaren emanen dute gaur eta bihar Gaiarre Antzokian

BILBON eta Donostian izan ondoren, *Políticamente incorrecto* (Politikoki desegokia) obra emanen dute gaur eta bihar Iruñeko Gaiarre antzokian. Ray Cooneyk idatzia da obra hori. Paco Mirrek zuzendua, antzezlanaren *vaudeville* original, argi eta alaia da, eta maitasun istorio korapilatsua kontatzen du. Arratsaldeko 20:00etan, Gaiarren izanena da gaur eta bihar ikusgai.

M U S I K A

■ Oinarri Abesbatzak kontzertua eskainiko du gaur Erreterian

AGUSTIN santuaren eguna dela-eta, kontzertua eskainiko du Erreterian Oinarri taldeak herri horretako Agustinas parrokiaren kontzertua gaur izango da, 20:00etan. Imanol Elizasuren zuzendaritzapean, Maitane Krespo sopranoak eta Joseba Lekuona tenoreak egingo dituzte solista lanak.